

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

2021eko urtarrilaren 25eko 35 zenbakiko Alkatetzaren Ebazpenaren laburpena. Ebazpen horren bidez, Zigoitiko haurreskolan 2020-2021 ikasturtean matrikulatutako haurren matrikulazio-gastuak ordaintzeko diru-laguntzen deialdia egiten da, norgehiagoka-prozeduraren bidez

BDNS(Identif.): 546322

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalan aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/546322>).

Lehenengoa. Onuradunak

Aurreikusitako laguntzen onuradun izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Haurreskolen Partzuergoko Zigoitiko udal haurreskolan matrikulatuta dagoen semearen edo alabaren zaintza eta jagoletza izatea, diruz lagundu daitekeen jardunak irauten duen bitartean.
- b) Semearekin edo alabarekin batera erroldatuta egotea, diruz lagundu daitekeen jardunak irauten duen bitartean.

Erroldatze bateratuaren eskakizun hori salbuesten da banantze, dibortzio edo deuseztasun kasuetan, zaintza eta jagoletza partekatuarekin; kasu horietan, adingabeak erroldatuta egon beharko du zaintza eta jagoletza esleituta duen edozein pertsonarekin.

Era berean, diruz lagundgarri den jardunak iraun bitartean errolda aurkeztetik salbuetsita egongo dira genero-indarkeriaren biktima izan diren edo diren amak, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 5. artikulua betez; horren arabera, genero-indarkeria jasan izanaren ondoriozko bizileku-aldaketa baten eraginpean dauden seme-alabentzat hezkuntza-sisteman berehala eskolatzea ezartzen da.

Bigarrena. Helburua

Desberdintasunen prebentzioa eta konpentsazioa barne hartzen dituen hezkuntza sustatzeko, ume guztiek gizarteratzeko duten eskubidea bermatzeko eta ume guztiek hezkuntza-sare publikorako sarbidea dutela bermatzeko, Haurreskolak Partzuergoaren haur-hezkuntzako eskolan ikasturtean zehar matrikulatutako umeak dituzten familientzako laguntza-sistema arautzeko oinarriak ezarri dira. Diruz lagunduko dira 2020-2021 ikasturteko eskola-matrikularen gastuak.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Diru-laguntza horiek emateko oinarri arautzaileak Zigoitiko haurreskolan matrikulatutako umeak dituzten familientzako laguntzen oinarriak arautzen dituen ordenantza espezifikoan daude jasota. Ordenantza hori Udaltzako onartu zuen 2017ko urriaren 18an egindako bilkuran, eta 2017ko abenduaren 18ko ALHAOn argitaratu zen, 143. zenbakian.

Diru-laguntza horiek emateko prozedura norgehiagoka-erregimenaren bidez egingo da, aurkeztutako eskabideak erkatuz, deialdi honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera lehenetasun-hurrenkera ezartzeko, eta irizpide horiek aplikatuz baloraziorik handiena lortu dutenak esleituko dira, hurrengo puntuan ezarritako mugarekin.

Laugarrena. Laguntzaren zenbatekoa

Deialdi honen arabera aurkeztutako eskabideen ondorioz ematen diren laguntzen finantzaketa 231.480.002 aurrekontu-aplikazioari egotziko zaio, 2021erako aurrekontuko "haurreskolan umeak dituzten familientzako laguntzak" kontzeptupean.

Laguntzen gehieneko zenbatekoa 231.480.002 aurrekontu-aplikazioan ezarritakoa izango da, 2021eko ekitaldiko aurrekontuarekin bat etorritik.

Aurrekontua betearazteko arauaren arabera, gastuen aurrekontuko 231.480.002 aplikazioan sartutako ordainketa-kredituak handitu egin ahal izango dira, eta diru-laguntza horretara bideratutako zenbatekoa 2.000 eurora igo ahal izango da, deialdi berririk egin behar izan gabe, betiere dagokion aurrekontu-aldaketa izapidetu bada.

Diru-laguntza bizikidetza-unitatearen errenta-mailaren arabera kalkulatu da, deialdiaren aurreko urteko datu ekonomikoen eta bizikidetza-unitateko kide-kopuruaren arabera.

Diru-laguntzaren oinarriak arautzen dituen ordenantzaren 8. artikuluan arabera bizikidetza-unitatearen errenta lortu ondoren, bizikidetza-unitatea osatzen duten pertsonen kopuruaren arabera zer errenta-tartetan dagoen zehaztu da, taula honen arabera:

FAMILIA-UNITATEKO LAGUN KOPURUA	T1	T2	T3	T4	T5	T6
2	9.000	13.800	18.600	23.400	28.200	33.000
3	10.540	15.340	20.140	24.940	29.740	34.540
4	12.575	17.375	22.175	26.975	31.775	36.575
5	14.500	19.300	24.100	28.900	33.700	38.500
6	16.425	21.225	26.025	30.825	35.625	40.425
7 o más	18.350	23.150	27.950	32.750	37.550	42.350

Diru-laguntzaren zenbatekoa taula honetan jasotako gehieneko ehunekora iritsi ahal izango da, familia-errenta dagoen tartearen arabera:

TARTEA	LAGUNTZAREN EHUNEOA
T1	Ehuneko 90era arte
T2	Ehuneko 85era arte
T3	Ehuneko 75era arte
T4	Ehuneko 60era arte
T5	Ehuneko 40era arte
T6	Ehuneko 20era arte

Errenta txikieneko tartetean dauden familien eskaerei emango zaie lehentasuna, eta tarte bereko eskaeren artean, per capita errenta baxueneko eskaerei emango zaie lehentasuna.

Halaber, lehentasuna emango zaie genero-indarkeriaren biktima diren amen seme-alabei.

Bosgarrena. Eskaerak eta justifikazioa aurkezteko epea

Eskaerak eta beharrezko dokumentazioa aurkezteko epea 2021eko irailaren 1ean hasiko da, eta 2021eko urriaren 1ean amaituko da, behin ikasturtea amaitu ondoren.

Seigarrena. Bestelako datuak

Eskabide ofizialarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Eskatzailearen nortasuna egiaztatzea nortasun-agiri nazionalaren edo egoitza-txartelaren bidez.
- Laguntzaren eskatzailearen eta semearen edo alabaren arteko filiazio-harremana egiaztatzea. Familia-liburu, jaiotza-ziurtagiri edo antzekoen bidez egiaztatu ahal izango da.
- Adopzio, harrera edo tutoretzaren kasuan, hura eratzen duen ebazpen judizialaren edo antzeko dokumentuaren kopia eskatuko da.
- Eskatzailearen ezkontza-deuseztasuna, banantze judiziala edo dibortzioa gertatuz gero, laguntza eskatu den semearen edo alabaren zaintza eta jagoletza esleitzen dion ebazpen judizialaren kopia.
- Guraso bakarreko familien kasuan, hitzarmen arauemailearen fotokopia, hala badagokio konpentsazio-pentsioaren egiaztagiria eguneratua eta seme-alaben aldeko mantenu-pentsioaren egiaztagiria eguneratua.
- Bizikidetza-unitatearen diru-sarrerak egiaztatzea, honako hauek aurkeztuta:
 - * Bizikidetza-unitateko kide konputagarri guztien errenta-aitorpenen fotokopia osoa.
 - * Gizarte-laguntzak jaso izanaren ziurtagiriak.
 - * Salbuetsitako diru-sarreraren kasuan: ezintasun iraunkor absolutuagatik edo baliaiezintasun handiagatik pentsioaren ziurtagiria, zurtasun-pentsioa, kaleratzeagatik kalte-ordainak...
 - * Bizikidetza-unitatearen diru-sarrerak eta egoera ekonomikoa islatzeko garrantzitsutzat jotzen duen beste edozein.
- Semea edo alaba Haurreskolak Partzuergoko udal haurreskolan matrikulatu dela egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Haurreskolako hileko kuotak ordaindu izanaren banku-egiaztagiria.
- Genero-indarkeriaren biktima izanez gero, egoera hori egiaztatu behar da kondena-epaia-ekin, biktimaren aldeko babes-aginduekin eta, salbuespen gisa, Fiskaltzaren txostenarekin, non adierazten baita demandatzailea genero-indarkeriaren biktima delako zantzuak daudela babes-agindua eman arte. Hori guztia abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 23., 26. eta 27.3 artikuluetan ezarrita dago.

Ondategin, 2021eko urtarrilaren 26an

Alkatea

JAVIER GORBEÑA GARCÍA